

SESTAON

Aurten bezalako giro onik nekez ezagutu da

INAKI BASTARRIKA / SESTAO

J oan zen larunbatean Kuetotik Plazarainoko jaitsierarekin hasi ziren Sestaoko San Pedro jaiak. Ordutik zahar eta gazteek hortxe izan dute egunero hainbat ekitaldi eta ikuskizun dibertitzeko eta parte hartzeko. Autonomietako folkloreak V agerria eta haurrentzako jolas desberdinek izan dute nagusitasuna aste osoan. Gaur Elliott Murphy abeslari amerikarrak kontzertua eskainiko du gaurdian kanposantuko zelaian.

Antolatutako ekintza eta ikuskizunek ezer gutxi balio dute jendeak esku hartzen ez badu, eta egiazki, jaiak jendeak eta umore onak egiten du, munduko diru guztiek baino gehiago. Aurten goa bezain jaigiro onik nekez ezagutu da Sestaon; eguraldi onak lagundurik egundoko jendetza inguratu da festa egun hauetan eta kaleak bete jende ikusi ahal izan dugu, sarritan goizeko 6 eta 7rak arte.


Koadrilen mugimendua inoiz baino biziago nabaritu dugu jaien lehen egun hauetan, batez ere txikienek sortutakoa. Hamar eta hamalau urte bitarteko gazetxoek beren blusak jantzita irten dira kalera eta orain arte ezeguna zen jai giro polita sortu dute. Aurten gazte koadrilek Jai Batzordetik kanpo prestatu dituzte beren ekitaldiak, aldez aurretik programa zehatzik taxutu gabe, jaietan biziki parte hartuta,

ordea. Programaren beharrik eza aldarrikatu dute eta inoiz baino jaigiro hobe eta ekintza gehiago sortu dute.

Gaur, San Pedro egunez, hainbat ospakizun dago aipagai. Goizeko 10etan emakumezkoentzat beisbol txapelketa jokatuko da Galindon eta 11.30etan Euskal Pentatlona egingo da Markonzagan. Eguerdian errioxar elkarteak 400 kilo baino txuleta gehiago atonduko ditu, Errioxako ardoz lagunduta jateko, prezioak nahiko merkeak izango dira. Arratsalde partean harrijasotzaileek erakustaldia egingo dute eta txinga-erute herrikoia egingo da.

Arratsaldeko 6etan Xabier eta Soler-ek Sanchez eta Castilloren aurka jokatuko dute pilotan afizionatu mailan. Manolo de Vegaren umore saioa ikusi nahi duenak 18.50etan Plazara inguratu besterik ez dauka. Arratsaldeko 7.30etan folklore agertaldiko beste saio bat ikusgai izango da plazan, Murcia, Galizia eta Euskal Herriko partaideekin.

Bihar igandea bukatuko dira Sestaoko jaiak. Txori kantarien 59. lehiaketako irabazleak zeintzuk diren jakin ondoren, Las Llanas pilotalekuan zesta puntaz partiduak jokatuko dira. Koadrilen arteko futbol txapelketaren azkena Galindon jokatuko da 11.30etan. Arratsaldeko 8.00etan odolki eta txorizo jana dohainik izango da inguratu nahi duenarentzat.



Rockaren hasierako iturrietatik edan zuen Elliott Murphy-k eta handik jarraitu du edaten urte askotan nahiz arrakasta komertzialik ez duen izan.

Elliott Murphy rockero handia gaur

I.B. / SESTAO


Arrakasta komertzial ezak ez dio inondik ere abeslari honi bere handitasuna kentzen. Elliott Murphy abeslari iparramerikarra sorrerako rock and roll haren jarraitzaile leial eta sutsua dugu. Garai batean punk mugimendua gustoko izan zuen ezarritako mugen aurka zihoalako, baina maitasun eta xarmarik eza nabaritu zion eta bere bidea urratzeari ekin zion Parisen bizi den hiri poeta umil eta handi honek. Gaur gaueko 12.00etan hilerriko zelaian zu-

zen zuzenean ikus-entzuteko dugu aukerari ezin zaio joaten utzi, handia bait da izar honen dizdira.

Sestaoko San Pedro jaietako batzordeak garrantzi handia eman dio musikari aurtengo jaietan. Elliott Murphy-ren kontzertuaz gain, beste bi rock gau antolatu dituzte; atzo Gris Perla, Platero y Tu eta Rabia taldeek kontzertua eskaini zuten Plazan; hiru taldeek euren lehen plastikoa atera berri dute eta atzo aurkeztu zuten jendarean estreinekoz. Bihar 22.30etan Sestaoko taldeek

eskainiko dute kontzertua Plazan; Talion, Charco eta Yo Que Se taldeek hartuko dute parte. Talion taldea Bilboko Hiria lehiaketan punta puntan ibili da hainbat urtetan heavy musika eginez eta talde bilbotarra den arren, Bruno bateria jolea eta Koldo baxu jolea sestaoarrak dira. Charco-k lehendabizikoz joko du Sestaon eta adituen us-tez, ezusteko polita emango dute. Yo Que Se taldeak ez du gutxiago izan nahiko eta gogoz saiatuko dira. Sestaarren kontzertu polita, beraz, jaietara amaiera emateko.


AUTO SUPERKREDITUA



Hilero 28.340 pta. MILIOI BAKOITZEKO



Banco
Santander



FOTO

Antonio

Festa on

Sanpedrotan!

Lorenzo Llona, 2
Lorenzo Llona, 5
Abatxolo, 23

Tfna.: 496.45.75
Tfna.: 472.00.65
Tfna.: 496.47.01

SESTAO
SESTAO
PORTUGALETE

GRAN VIA OPTIKA



Eredu berrienak betaurreko graduatu eta eguzkitakoetan.
Erabil itzazu uda honetan ukipen lente baztergarriak.

GRAN VIA, 4 / SESTAO / Tfna.: 496.28.52



Liburudenda
Papertegia

OPARI GAIK

Grupo del Carmen
Triano z/g
SESTAO

EUSKARA

UZTAILA

Maila guztiak

EGA

SESTAO

La Humanitaria, 19
Tfna.: 496.09.00



SESTAOKO JAIK 91

HERRIKO JAIK: Ekainaren 22tik 30era bitarte.

"Udan ere Sestaok gehiago eskeintzen dizu"

SESTAOKO UDALA / JAI BATZORDEA / ELKARTEAK
Jai zoriotsuak Sestaotarroi!!!

Egunkaria

Festa on
irakurleoi!!



Nationale-Nederlanden

ZURE LASAITASUNA

GURE LANA DA

Las Llanas Zumardia, 5
Tfna.: 472.10.05
Faxa: 472.09.07
48910 SESTAO

Lloyd
Adriatico